



GOIKOETXEA, Juan Luis
Euskalkia eta hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera.
Euskal Diglosia irazian
 Bilbo: Euskaltzaindia, 2003. – 282 or. ; 17 cm. – ISBN:
 84-95438-10-0

Goikoetxeak ekartzen duen liburua Jean Haritschelharek zuzendutako tesi baten fruitu da. Doktoradutza tesia Bilboko irakasle-eskolan irakurri da da eta bibliografian aipatzen denarengatik, lan hau Hizkuntzalaritza-Psikologia-Pedagogia-ren ikerketak oinarri harturik, hizkuntzaren erabilpenaren ikerketan murgiltzen da. Honenbestez, hizkuntzalarientzat eta bereziki maisu-maistrendako egokia dateke, eta orokorrean eskoletan euskararen irakaskuntzan interesaturik dagoen edozeinendako. Izan ere, euskalkiaren erabilpenean, eta euskara batua/ euskalkia dikotomia eskolan nola bideratzen den oinarriturik dagoen ikerketa da.

Liburu honetan ez dugu geolinguistikak erabili ohi dituen mapa eta horrelakorik aurkituko, ez sailkapen ezta ezaugarri fonetiko-morfologiko zerrendarik ere. Monografia honetan egilea saiatzen da ukipenean dauden euskararen hiru maila hauek: euskara batua, euskalki literarioa eta azpieuskalkia uztartzen, haurrarendako ikasketa esanguratsua egitea xede delarik.

Bestaldetik, horrelako ikerketa batek dituen baldintzak kontuan hartu eta esplizituki azaltzen dira.

Liburua zortzi ataletan banatua dago. Lehenengoan hizkuntzaren soziologia gaiak jorratzen ditu. Weinreich-en ekarpenak Hizkuntza/ Dialektoari dagokionean eta baita Ferguson-en ekarriei ohiartzun eginez dialektoen arteko ukipenean sakontzen du. Honez gain, Euskal Herrian dauden hizkuntza ukipen ezberdinak identifikatzen dira, alegia: erdara eta euskara, eta euskararen barruan, euskara batua, euskalki literarioak eta azpieuskalkia.

Era berean, Calvet, Ferguson eta kanpoko hainbat ikertzailearen ekarpenak biltzen ditu baita hemengoena ere: Txillardegí, I. Idiazabal eta beste batzuen.

II. atalean Ausubelen irakaspen esanguratsuaren, alegia psikologiaren ekarpenetan oinarri harturik, haurren irakaspenaren prozesua aztertzen du, kanpoko ikertzaileen Bernard esaterako, eta barrukoena, Idiazabalenak, bilduz.

IV. atalean ikerketa nola egin den biltzen du. Zenbat galdera egin diren, nori zuzenduak... Galdetegiak eskoletan eta Institutoetan burutu dira.

Eleizalde Ikastola etab. BBB-ko Institutuei dagokienez, honako zentruotan egin zen: Bermeoko, Txorierriko batean, Getxoko batean, Kirikiño eta Askartza Institutoetan.... Baina ikerketa ez da bizkaieraz mintzo den lekuetara bakarrik mugatu. Zubero-

ako ikastetxeak ere izan ditu aztergai, alegia, bazterreko bi euskalkietara zuzendu du ikerketa, hain zuzen ere euskara batutik gehien aldentzen diren horietara, euskara batua/ euskalkia uztartzean arazo gehien ekar dezaketara.

Alor honetan galdeketaren antolaketa zehazki azaltzen du eta baita galdeketak sortzeko oinarri izan dituen irizpideak ere. Azterketaren emaitzak ere III. atalean agertzen dira, galderaz galdera eta ikastetxez ikastetxe.

Azkenean, IV. atalean bizkaieraren irakaskuntzarako oinarrizko curriculum-aren diseinua eta edukien multzoa aztertzen du, alegia, idatzizko eta ahozko komunikazioaren papera eta baita irakurketaren betebeharra ere. Azkenean, estrategien diseinua egiten du eta baita orientazio orokorrak eta ebaluaziorako orientabideak ere.

Egileak ez du alde praktikoa baztertzen, eta, hori dela eta, pragmatikari begiraturik badira aholku batzuk, berauetan azpimarratzen da zein alde dagoen sei edo zortzi urteko haur baten eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan mugitzen duen beste baten artean.

Egilearen ondorio bezala esan dezakegu apustua dela etxetik euskara dakitenentzat atxikitze-eredua erabiltzea eta ez murgiltze-ereduaren alde egitea. Goikoetxearen tesia lekuan lekuko euskararekin datorren ikaslearen gainean eraikitzen baita. Zehatzago oraindik: ondorioen artean, hauxe nabarmentzen da, atxikitze-eredukoekin euskara batua euskalkiaren –etxetik dakartenaren– arartekotasunez ikastea dela egoki, beraz, etxetik euskalkia –bizkaiera, zuberera...– dakitenentzat atxikitze-eredua dela irakasbide zuzena.

VI. atalean ondorioak laburbiltzen ditu, VII.ean bibliografia dakar eta azkenik, Eranskin gisa erabilitako galdeketak atalka sailkatuak. Honenbestez, ekarpen interesgarri baten aurrean gaude, irakasleentzat bereziki lagungarria, sakonki aztertu baitu irakaskuntzak daukan erronka eta hainbat aterabide ere proposatzen dituelako.

Orreaga Ibarra



GUTIERREZ, Arantza

Euskal irratigintzaren historia

Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 2002. – 215 p. :
il. ; 24 cm. – 84-8438-031-9

Irakurri beharreko liburu baten irradi-kronika

Agian irratigintzak laurogei urte besterik ez dituelako geure artean, liburu honen abiapuntua ez da oso “historikoa”. Irakurtzen hasi ahala, oinak egunerokoan dituen hedabidearen nondik norakoak kontatuko dituela ikusten da. Atzera begiratzen du soilik